

Balio proposamena

Gure planeta gero eta kutsatuagoa dago eta gizakiok ez dugu behar beste egiten arazo hau konpontzeko. Arrazoia nagusia da, gizakiok ez gaudela batere kontzientziatuta eta ez dugula arazoa konpontzeko jarduerak egiten. Ikiguren balio proposamena Garapen Iraunkorreko Helburu (GIH) hauekin lotzen dugu: 12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsua, 13. Klima babesteko ekintza eta 14. Uretako bizitza; zaborra bildu eta urak garbitzeaz gain, jendea kontzientziatuko dugulako.

Datuei erreparatuz, (UNEP, WWF, NATIONAL GEOGRAPHIC, SCIENCE MAGAZINE ETA WHO), 1950etik aurrera, plastikoaren ekoizpena izugarri handitu da, izan ere, munduan 8.300 milioi tona plastiko ekoiztu dira eta haietatik %9 bakarrik birziklatu dira; gainerako %79 zabortegietan edo ingurumenean pilatuta duade. Itsasoari dagokionez, urtero, 11 milioi tona plastiko itsasora iristen da. Hau da, minutu bakoitzean kamioi karga bat itsasora botatzen da. Faunari egindako kaltea aztertuz, itsas hegaztien %90ek baino gehiagok plastikoak dituzte urdailean. 2050erako itsasoan plastiko gehiago egongo da arrainak baino.

Arazo honi aurre egiteko, gure helburu nagusia da gizartea kontzientziatzea eta sentsibilizatzea. Horretarako:

1. Euskal Herriko sektore publikoak (udalek, foru aldundiek eta eusko jaurlaritzak), enpresek (adibidez, Iberdrolak, Mondragon kooperatibak eta Kutxabankek) eta ikastolek kontratatuko digute zabor-bilketako jarduerak antolatzeko hondartza, mendi, herrietan eta ekitaldietan (jaiak, futbol partiduak).
2. Bildutako zaborra bertako artistei emango diegu, haiek eskulturak edo margolanak sortzeko, tokiko artistei aukera emanez.
3. Sortutako artelanak herrietan erakutsiko ditugu, kontzientziazio-kanpainak eta turismo lokala sustatuz eta horren ostean salduko ditugu merchandising moduan.

Merkatuan zabor-bilketa antolatzen duten erakunde batzuk daude, hala nola:

- Surfrider Foundation: hondartza eta ibaiak garbitzen ditu.
- Mares Circulares (Coca-Cola): garbiketa ekitaldiak eta plastikoaren erabilera murrizteko kanpainak.
- Oceana: Ozeanoak babesten ditu eta kutsadura murrizten du.

Gure abantaila:

- Gure enpresak bezeroei zerbitzuak zuzenean eskaintzen dizkie, bakoitzaren helburu eta ezaugarriak kontutan hartzen dituzten ekintzak antolatuz eta herritarren parte-hartze zabala bermatuz.
- Bildutako zaborra bertako artistekin lankidetzan erabiltzen dugu, ekonomia zirkularra eta sormena sustatuz.